

Ariketa hauek Ikasbileko 2088745 jardueran aurkituko dituzu

Audioaren erreferentzia: JJ-71 Zaborrak

Mailak: B2-C1

Funtzioak: iritzia eta azalpenak eman, elkarrizketa bidezko eztabaida

Adierazpide linguistikoak: lexikoa (*zabor, atez-ate, alderdi, edukiontzi, ausardia, heziketa, kanpaina, ardura, hondakin, bular, faxista...*), *deklinabidea mugagabea/mugatua bereizi (zein edukiontzitan, baliabide ezberdinetara...), ere, behar izan, erlatiboak, -tik behera,*

Azken ekintza: Elkarrizketa sortu: zer egin hondakin organikoarekin?

EGITEKOAK

1-Ikasgelara etorri aurretik egitekoa.

1.1 Zaborra biltzen



Gaiari hurbiltzeko eta ikasgelan audio-pasarte entzun aurretik partekatze jarduerak: Jon eta Jone zaborrari buruz hitz egingo dute gaurko saioan. Aurretik, gogoeta egingo dute galderei erantzunez. Ondoren, testua irakurri eta zabor gutxiago sortzeko ideiarekin bat garatu dezatela

1. Zure herrian zein sistema erabiltzen da zaborra biltzeko? Atez-atekoa Bost edukiontzirena Hiru edukiontzi mota daude Edukiontzi bakarra daukagu Ez dago birziklatze-sistematik

2. Zer moduz moldatzen zarete etxean sistema horrekin?

3. Posible al da sortzen duguna baino zabor gutxiago sortzea? Irakurri testua eta ondoren, azaldu zeuk etxean zer egin dezakezun (edo egiten duzun).

Chicagoko jatetxe batek ez du zaborrik atera ia bi urtean

Jatetxe honek irekiz geroztik pilatu duen zaborra tamaina bereko beste batek ordu betean sortzen du, esan dio sukaldariak kazetariari. "Eta nik ostatu merke honekin lortu baldin badezaket, beste jatetxeei gauza bera egitera iristen lagundu nahi nieke".

Sukaldean eta mahaietan erabilitako guztia berrerabili (hondakin organiko guztia konpostatu ere bai) eta birziklatzeaz gain, Vranyk zorrotz kontrolatzen ditu hornitzaileek dakarzkieten azal eta ontziak: Barazkiak inguruko nekazariak bere horretan dakarzkiete, esaterako.




Barazkion hondar asko ere berrerabiltzen ditu, entsaladetarako politik ez diren hostoak biharamuneko zopatarako erabiliz, oilaskoei kendutako hezur asko bezala...

2- Ikasgelan amaitu ondoren egitekoak.

Elkarrizketako esaldiak deklinabide marka egokiez osatzeko hutsuneak bete ariketa

1- Entzun aurretik

1.2 Zer erantzun duzue?

  Hitz egin dezatela ikaskidearekin  ariketan zaborrari buruz idatzi dutenari buruz ea antzeko erantzunak dituzten.

2- Entzun bitartean

2.1 Kontu erraza al da ba?

Jon eta Jone afaldu eta sukaldea jasotzen ari direla, zaborra birziklatzeari buruz aritu dira. Zein da bakoitzaren ikuspuntua? Aukeratu erantzun egokia

Zuzenketa:

Joneri iruditzen zaio:

- Jendea galduta dabilela aurretik ez delako behar bezala hezi
- Edukiontzirik gabe jendeak ezinezkoa duela behar bezala birziklatzea
- Herri guztietan zaborra biltzeko sistema bera erabiltzea ez dela posible

Jonek pentsatzen du:

- Agintean dauden alderdiak ausardiaz jokatu baino gehiago, alderdikeriaz ari direla
- Herritarrentzat errazagoa dela gauzak egun batetik bestera aldatzea
- Zaborren kontuak ez daukala zerikusirik alderdi politikoekin, nahiz eta hala dela erakutsi nahi duten

2.2 Ideiak lotu

Entzun dituzten hainbat sarkasmo dagokien azalpenarekin lotu. Horietako batek ez dauka azalpenik. Ikasleek idatzi beharko dute. Ariketa egin ondoren, alderatu dezatela ikaskideak egin duenarekin.

Zuzenketa:

JON: <i>Eta hori Ingurumen Sailean lan egiten duen batek dio!</i>	b
JONE: <i>Nola ez! Zure lagunena sistema delako!</i>	a
JONE: <i>Edukiontziak kendu izan bagenitu, zer erreko zuten zure lagunek?</i>	d
JONE: <i>Hara! "Enroilatu" progresista izatetik faxista izatera pasa zara 10 segundoan</i>	c
JONE: <i>Bai, klaro, eta papaia-zukuak minbizia sendatzen duela entzun dut nik!</i>	Kafe hondakinak harraskatik behera botata, ur-hodia libratu egiten duela komentatu dio Jonek Joneri aurretik.

3- Entzun ondoren

3.1 Zabor organikoa...hau kiratsa!

Asier eta Mirenen etxean zaborra birziklatu egiten dute. Baina gaur zerbait gertatu zaie zabor organikoarekin eta eztabaida bizian hasi dira. Bien arteko elkarrizketa irakurri ahala, kokatu ditzatela falta diren zatiak bere lekuan.

MIREN: *Atzo zabor organikoa aterako zenuela hitz eman zenuen, aditzen duzu etxe osora hedatu den kiratsa? Jasangaitza da.*



ASIER: Ez da hainbesterako, ni ez naiz usainaz ohartu ere egin.

MIREN: *Eta iruditzen zaizu datorren astera arte pasako duzula usainaz ohartu gabe?*

ASIER: Zure ahizpak konposta etxean egiten du, eraman dezakegu hara.

MIREN: Hori erakutsi nahi diozu alabari? Gure zaborraren kudeaketaren arduradun izan behar dugu, eta hala agertu, arduragabekeria ez da hezitzailea, gaur berari dagokio papera ateratzea eta zilegitasun morala galdu duzu egin dezan eskatzeko.

Asier isilik geratu da, ea gaia pasatzen den, momentuz behintzat, afaldu arte.

MIREN: Ez duzu ezer esan behar?

ASIER: Ez zait hainbesterako iruditzen.

MIREN: A ez?

ASIER: Ez, dudarik gabe ez.

MIREN: Zuri ezer ez zaizu hainbesterako iruditzen.

ASIER: Kontrakoa "ilusoa" izatea litzateke.

MIREN: *Ilusoa naizela uste duzu erraustegi bat jartzea eragotz dezakegula uste dudalako?*

ASIER: «Dezakegu» horrek bestean adostasuna eskatzen du, ezta? Ba ni ez nago ados, eta beharturik nago ekologista izan gaitezkeela antzeztera.

Asierrek badaki bide horretatik gaizki doala, eztabaida luzatzen baizik ez dela ari, baina bat-batean ez zaio desatsegin oihu egiteko koartada bat izatea.

(...)

<http://eibar.org/blogak/volga/zaborra-tik> hartutako testu-zatia

Ondoren egiteko:

Binaka egin beharrekoa: elkarrizketari jarraipena eman

- Asier eta Miren nor izango den erabaki
- Batetik, eztabaidari jarraipena eman, bakoitzak bere rolaren jarrerari tinko eutsiz
- Bukaeran, atera gabe geratu den zaborrarekin zer egingo duten erabaki behar dute

Talde handian egin beharrekoa:

- Elkarrizketa antzeztu
- Irtenbiderik onena zein iruditu zaien erabaki talde handian

BAKARKA EGITEKO ARIKETA

Besterik gabe

Osatu esaldiak falta diren hitzak testuinguruaren arabera deklinatuz

Jone, izoztuen azpil hauek zein POLTSA **poltsatan** doaz?

Nik plastikoen EDUKIONTZI **edukiontzira** botatzen ditut

Eta hori, Ingurumen SAIL **Sailean** lan egiten duen batek dio

Zentzurik ez duena da herri DESBERDIN **desberdinetan** sistema ezberdinak erabiltzea

Azkenean, indarra galdu eta baliabide EZBERDIN **ezberdinetara** joaten da lan dena

Zuk ere ez dakizu zein EDUKIONTZI **edukiontzitan** doan azpiltxo hori

Uste dut asmoa ona izanda ere, ez dutela modu APROPOSA **aproposean** planteatu

Nire lagunak aspaldi pasa ziren zure lagunei hainbeste DIRU **diru** ematen dieten BANKU **bankuetako** kutzazainak erretzera

Ausardia izan dute gaiari heltzen, baina ez dute modu EGOKI **egokian** egin

Nora bota behar ditut kafe-hondakinak, ORGANIKO **organikoetara?**

TRANSKRIPZIOA

JON Jone, kongelatuen (izoztuen) bandeja (azpil) hauek ze poltsatan doaz?

JONE Ze bandeja?

JON Bai, kortxo zuria diruditen hauek

JONE Ah horiek nik plastikoen edukiontzira botatzen ditut.

JON Bale

JONE Baina egia esan ez nago ziur... zaborren kontu guzti hau ulertzeko ia ia master bat egin behar dago eta...

JON Eta hori Ingurumen Sailean lan egiten duen batek dio.

JONE Zentzurik ez duena da herri ezberdinetan sistema ezberdinak erabiltzea... azkenean indarra galdu eta baliabide ezberdinetara joaten da lan dena...

JON Ba niri atez-atekoa ongi iruditzen zait.

JONE Klaro nola ez, zure lagunak sistema delako.

JON Nire lagunak? Nortzuk dira nire lagunak? Podemosekoak?, Ciutatans? Rosa Diez?

JONE Badakizu zuk ongi.

JON Hori da arazoa, zaborren asuntua (kontua, gaia) berehala lotzen duzuela alderdi politikoen eta ez dauka inongo zerikusirik.

JONE Zure lagunak dira guztia nahasten duten lehenak.

JON Ba pentsa, haien artean ere errazagoa zen ezer ez egitea, zer irabazten dute ba, zaborren kontuarekin?

JONE Ez dakit Jon, nik diodana da ez dutela ongi egin, pentsa, zuk ere ez dakizu zein edukiontzitan doan bandejatxo hori.

JONE Aizu... ni ez nagoela kontra e!, baina uste dut asmoa ona izanda ere, ez dutela modu aiposean planteatu... ezin da egun batetik bestera, zaborra kalera botatzen zuen jendeari arraina erosteko tuperrak banatzen hasi...

JON Jakina, errazagoa da zuek egin duzuen, ah! ez duzuela ezer egin azken 20 urteotan.

JONE Klaro, nahita, pentsa kontenedoreak (edukiontzia) kendu izan bagenu. Zer erreko zuten zure lagunak?

JON Nire lagunak aspaldi pasa ziren zure lagunei hainbeste diru ematen dieten bankuetako kajeroak erretzera.

JONE Zurekin bat nator zaborren asuntuari heldu behar zitzaiola eta ausardia izan dutela gaiari heltzen, baina ez dute modu egokian egin, jendea hezi behar da lehenago.

JON Klaro, horretarako betikoa heziketa kanpaina, dena dira heziketa kanpainak, gauzarik zentzuzkoenak egiteko ere heziketa kanpaina behar da, jendea ergela delako.

JONE Beno, aizu, utzidazu bakean, beranduegi mitin bat agoantatzeko.

JON Ez ba, jendea ez da ergela eta egindakoaren ardura hartzen badaki.

JONE Eta ardurarik hartzen ez duenari zigorra orduan?

JON Ba bai.

JONE Hara, enroilatu progresista izatetik faxista izatera pasa zara 10 segundoan.

JON Aizu Jone, eta faxista honek nora bota behar ditu kafe hondakinak?

JONE Organikoetara.



JON Ziur? Nik entzuna daukat iturritik behera botata desataskatu egiten duela.

JONE Bai klaro eta papaia zukuak kantzerra (minbizia) sendatzen duela ere entzun dut nik, baina kafe hondakinak organikoen poltsara.

JONE Jon, geratu lotara nahi baduzu.

JON Faszista batekin oheratu nahi duzu gaur?

JONE Gaur? Mutil batekin oheratzen zaren bakoitzean faxista txiki batekin oheratzen zara.

JON: Bueno, falta zaizun gauza bakarra alkandora ireki eta bularrak erakustea da

JONE Baina zer diozu?

JON Bota didazun Femen diskurtso horrek zentzua izan dezan, gutxienez erakutsi titiak.

JONE Anormal

JON Bueno, baina nahi duzu faxista batekin oheratu edo ez?

JONE Baietz ba

JON Ba goazen lehen lehenbailehen, dagoeneko nire diktadore txikia zure lurraldeak inbaditzeko desiratzen dago eta.